

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

5016

EBAZPENA, 2023ko urriaren 19koa, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariarena, zeinaren bidez izendatzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko eremuak sustatzeko eta garatzeko laguntzak emateko balorazio-batzordea osatuko duten pertsonak (Itsaspen Programa 2023).

Ikusi da 2023ko uztailaren 18ko Agindua (2023ko abuztuaren 29ko EHAA, 164. zk.), Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez 2023ko deialdia egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko eremuak garatzeko eta bultzatzeko laguntzak emateko, otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren II. eta III. kapituluetan aurreikusitakoaren arabera.

Dekretu horren 9. artikuluan ezartzen da balorazio batzorde bat eratuko dela aurkezten diren eskabideak aztertu eta ebaluatzeko; batzorde horrek hiru pertsonak osatuko dute, gaur egungo Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzaren menpeko zuzendaritzetako teknikarien artean aukeratuko direnak. Pertsona horiek batzordeko kideak izango dira, eta hitz egiteko eta bozkatzeko eskubidea izango dute.

Hori dela-eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Balorazio batzordea osatuko duten pertsonak izendatzea, eta batzordearen osaera argitaratzea:

Batzordeburua: Ibon Arbaiza Ugarte.

Kideak:

Ion Pagaldai Barruetabeña, idazkari-lanetan ere arituko dena.

Inma Lacalle Aberásturi.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako eta denek horren berri izan dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 19a.

Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendaria,
JONE MIREN FERNÁNDEZ LANDA.